



Goi OSASUN LAB

GOI OSASUN LAB I

LABURPEN

EXEKUTIBOA

H-Enea  **Living Lab**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ADIN
BERRI**



1. SARRERA



2. DATAK



3. NONDIK - NORAKOAK



**4. AUKERAK ETA
ZAILTASUNAK**




5. BALORAZIOA

1. SARRERA


Gizartearen zahartzea da gaur jorratu beharreko gai sozial garrantzitsuenetako bat. GoiOsasunLab proiektuak goierritarren bizitza autonomoa luzatzea izan du helburu.

GoiOsasunLAB -eko sustatzaileak H-Enea, Ubikare, Goieki, Nagusi Lan eta Adinberri izan dira. Proiektu pilotu hau modu parte-hartzailean gauzatu da, inobazio irekian alegia. H-Enea Living Lab izan da agente guztiekin batera balio proposamen berritzailea osatu eta kontrastatzeko arduraduna.



2. DATAK

Proiektua 2020ko martxotik, 2021ko otsailera eraman zen aurrera Beasain eta Ataungo udalerrietan.



3. NONDIK - NORAKOAK

1. ZER BEHAR ASETU DITU PROIEKTUAK?

Gipuzkoako biztanleriaren %36k 55 urte edo gehiago ditu gaur egun, eta aurreikuspenen arabera, 2031n %43era igoko da portzentai hori. Mundu mailan bizi itxaropen handienetakoa duen herrialdeetako bat da Gipuzkoa.

Goierriin aurrera eramán den pilotu honek, gizartearen zahartzeari aurre egiteko eta adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko zerbitzu integrala sortzea izan du helburu, bizi-autonomia luzatu eta zahartze aktiboa sustatuz. Aldi berean, ospitaleetako sarrerak eta gastuak gutxitzeko estrategiak ikertzea zen xedea, prebentzio estrategia bat aurrera eramanda.

3. NONDIK - NORAKOAK

2. NORI DAGO ZUZENDUA?

Beasain eta Atauneko mendekotasunik ez duten 70 urtetik gorako pertsoneri eta bertako udalei zuzendu da proiektua da. Kolektibo horren barruan, pertsona gehienek ezaugarri gehigarri hauetakoren bat betetzen zuten:

- 70 urtetik gorakoa izatea
- Gaixotasun kronikoak izatea: bihotz-gutxiegitasuna, HTA, Dislipemia, diabetesa, EPOC, Arritmiak
- Hausturak, sare sozial gutxi, bakardade sentrazioa duten pertsonak edo bakarrik bizi direnak.

3. NONDIK - NORAKOAK

3. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Ekintza-plan baten bidez pilotuan parte hartu duten pertsonak diagnostiko pertsonalizatu bat jaso dute. Parte hartzaile bakoitzaren diagnostikoen emaitzen arabera, bizi-kalitatea hobetzeko helburua izan duen pilotu bat aurrera eramán da, mendekotasun-egoerak edo mendekotasun handi goa prebenitzeko jarduerak garatuz. Proiektu bukaeran balorazioak egin dira, Udaleko **H-ENEaren lana pilotuaren proposamena partehartzaileentzako ulergarria eta eskuragarria bihurtzea izan da**. Gizarte Zerbitzuetako arduradunekin konpartituz eta beraien iritziak jasoz. Emaitzak eskualde mailan ere partekatu dira, Goieki-ren bidelaguntzarekin.

3. NONDIK - NORAKOAK

4. JARDUERA: EREDU ERREPLIGARRIAREN PROPOSAMENA ETA AURKEZPENA

- EREDUAREN ERREPLIKAGARRITASUNA
BERDISEINATZEA hautatutako erabiltzaileen profilera zuzendutako proposamen digitalen areagotzean egongo da oinarritua. Proposamen digitalak gehitzeak, aurreikusita zegoen erabiltzaileen interakzioa berriz ere diseinatzea eskatzen du, GoiOsasunLABen ondorengo etapa baterako.
- Zerbitzuaren digitalizazioak pilotuaren erreplikagarritasun aukerak areagotzen ditu, erabiltzailearekin lortzen den harremana egokia den heinean. Zentzu horretan, horrek bideragarritasun azterketa txiki bat egitea ahalbidetu lezake, COVID-19aren bigarren olaturako udalerriko xede-populazio osora (aurre-hauskorrak) iritsi ahal izateko.

4. AUKERAK ETA ZAILTASUNAK

1. ERABILTZAILEEN PERSPEKTIBATIK

Hasieran egiten zaien diagnostikoaren arabera erabiltzailearen profilerako zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzea izan da helburua (ariketa fisikoak, kognitiboak, arazo espezifikoetarako nutrizio aholku pertsonalizatuak). **Guzti hori modu erraz batean proposatzeko lana erabakikorra izan da hasieran, hau da, Ubikarek bere hizkuntzan eta buruan duen proposamen hori erakargarria bihurtzea.** Profilari egokitutako **3 aktibitate programa diseinatu** dira, partehartzaileen beharren arabera.

Bestalde, 2020-an lehertutako COVID egoerak proiektuko proposamena aldatzeko beharra sortzen du eta pilotua digitalki gauzatzea erabakitzen da, parte-hartzaileei beraien infraestruktura digitalaren arabera modu eroso baten konektatzeko aukerak emanez. **Proiektuaren birformulazioan, ustiapen ekintzetan, 35 pertsonen partaidetza zegoen helburutzat eta 57 izan ziren parte hartu zuten pertsonak.**

4. AUKERAK ETA ZAILTASUNAK

2. UDALETXEEN PERSPEKTIBATIK

Eskaintzen den zerbitzua berritzailea denean Udaletxeen abiapuntua zein den ere ulertu behar da. Parte hartzea onartzen dutenak zergatik egiten dute? Beasaingo kasuan zerbitzu digitala eskaini delako izan da, Ataunen zahartzaro aktiboa sustatzeko eskaintza aberastu nahi dutelako.

3. MANKOMUNITATEAREN PERSPEKTIBATIK

Udalen interesak sakonago ulertzeko ezinbestekoa da beraien papera. Zahartzaro aktiboa sustatzeko Zerbitzu berritzaileen zentzu ekonomikoa analizatzeko ere.

5. BALORAZIOA

Pilotuko parte-hartzaile gehienak azkar egokitu dira teknologia digitalen erabilerara. 65 urtetik aurrera egiten dugun ariketa fisikoak, gure osasunean, gaitasun funtzionalean edota autonomian duen eragina handia da, beraz, positibotzat hartzen dute hauek aurrera eraman izana.

Udalen gogobetetze erakusle bezala, udalak bigarren fase batera atxikitu izana da. Hurrengo faseetan (Goi Osasun Lab II) kostu analisia egin beharko da. Udalek, ko-ordainketa bat nola kudeatuko zuten aukera hurrengo fasean aztertuko da, erabiltzaile gehiago eta dimentsio desberdinetako udal gehiago atxikitzeko. Birebaluazioa eta kontraste baten bidez.

5. BALORAZIOA

1. ASPEKTU KUANTITATIBOEN EMAITZAK

- Inkestaturen %82-k uste du zailtasun txikia edo batere zailtasunik ez duela izan teknologiarekin.
- Profesionalek balorazio altua jaso dute 10etik 9,23-ko balorazioa eman diete.
- Parte-hartzaileen %82-ak ez luke programako ezer aldatuko.
- Parte-hartzaileen %76-k uste du bizi-kalitatea dezente eta asko hobetu zaiela.
- Parte-hartzaileen %76-k beste pertsona bateri gomendatuko lioke


5. BALORAZIOA

2. PROPOSAMEN ESKALAGARRIA DA

Goierriko Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen du 2021eko urtarrilean, ereduaren erreplikagarritasuna aztertzen jarraitzea, udal gehiago eta Mankomunitateko eragile gehiago atxikiz.

Goierriko 5668 pertsona izan daitezke zerbitzu horren erabiltzaile potentzialak.

- Beteranoak:** Ataun eta Beasain
- Interesatuak:** Mutiloa, Olaberria, Segura eta Zaldibia





Goi OSASUN LAB

H-Enea  **Living Lab**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ADIN
BERRI**